

ELBIRA ZIPITRIARI, AGUR!

Elbira Zipitria, gure izkuntzak izan dauan lenengoetariko andereño ospetsua, Donostia'n il zan 1982'gnekoko Gabonillaren 27'garrenean; urrengo egunean Bizkai'ko bere Mañu kutunean obiratu.

Urte asko dira Elbira ezagutu genduala bere Donostia'ko ikastola berezi ta txukunean. Lenengotik erri-miñez geisoturik egoala konturatu nintzan gorputzez txiki ta zimel baiña biotzez eta gogoz aundia, jakituriz aberatsa zala andereño a. Gure adiskide ona zan Garitaonandia'tar Gotzon, «Mañuko abadea», ameskide kutun eta begiko izan eban. «Agur» aldizkaria sortu ta argitaratu genduanean lagunkide izan genduan lenengotik.

Gotzon il zanean oñeztarriak jota lez geratu jakun gure Ira. Benetan euskaldun jator bi areintzat, euskeraren muiña ta ardatzaren jaube ziran adiskide areintzat iruntzi-eziña zan euskera iraulia edo irautzaillea.

Ira'ren eskuz-idazkera oso ulergaitza izanik makiña bat denpora egiten genduan Beistegi ta biok idaz-lanen esanaia ulertzeko. Baiña arek idatzitakoan beti egoan Aberri miñez egindako zeozer jakingarri.

Ez dot uste Ira'k azken-urte oneitan poztasun larregi izan dauanik. Gaztañaga abadeak

Mañu'ko eleizkisunean azaldu eban lez, «Dana zuzen, dana eder, dana ondo» nai izaten eban Ira'k, ta jakiña, olako batentzat arantzaz betetako bideak baiño ez dira aurkitzen mundu onetan.

* * *

«Agur» aldizkaria euskaldunen laguntzarik ezak ito ebanetik ona Aralar'go San Migel'en alkar ikusten genduan ea urtero, gure sendiagaz batera an egiten genduzan udako egotaldi labur baiña gozoetan. Azken uda onetan be an izan giñan azkenengoz. «Zer moduz Ira?» —esanda agurtzean—, «Gaizki Josu, oso gaizki» zan bere urteroko erantzuna.

Beti bat entzuteak siñez-gogor egin ginduzan baiña aurten Jaungoikoak bein eta betiko bereganatu nai izan dau aurki! Azken-bazkalondoko barriketa-aldian azaldu eustanez, gure lagunak arantza bat eukan biotzean sartuta. Abertzale amorratu ta sutsu arek ez eban izparringirik aspaldian irakutzen baiña politika nasteborrastearen oiartzunaren batek jo eban bere belarrietara ta orrelan oarturik, abertzaleen arteko ezbardintasunakaz minduta, arduratuta egoan:

—«Josu, denok ez al zerate alkar-tuko?».

Nik mingortasuna gozotunaijan onako au edo antzekoa erantzun neutson:

«Bai, Ira, gure etsaiak, egoaldeko otso aundiak, barriro bere erpak erakusten dauskuzanean, abertzaleok barriro alkartu-bearra izango dogu ta egoera ori Euskalerrriaren kondaira ezagutzen dogunontzat ez da urrun nabari...».

Ez dakit siñestu eustan ala ez, baiña lasaiago gelditu zalakoan nago eta ez neban uste agurtu giñanean azkenez izango zanik.

Gotzon Garitaonandia ta Bermeo'ko Mañu auzo zoragarria ezagutu ebazanetik, idealismoak eraginda, ango illerrian bere gorputza lurperatzea eskatu ei eban, illobiko arrian zer idatzi ta guzti aukeratu ondoren.

Bere naia betetzeko Donostiko ikasle izandakoak ta beste lagun on talde bat etorri ziran bere gorpua aurretik zala, autobus eta berebilletan, Bermeo'tar ta beste bizkaitar lagun taldetxo bategaz batera Elbira Zipitria izan zanari azkenagurra egitera.

Gu be tarteko giñan eta bere omenez zeozer egitekoan barriro be euskeraz idazten astea izango dalakoan, nagikeria edo ilusiorik-ezari uko egiñaz, emen natorkizue, ZER'go adiskideok, Zipitria'ri agur esanaz batera nere laguntza apala eskeintzeko asmoz.

ARENAZA'tar Josu